

DROGETEN ITURRI

Ermuko eta Mallabiko aldizkaria. 310. zenbakia. 2022ko apirila



Malen Olañeta
urrezko baloiaren jabe

heziketa zikloak

Erdi eta Goi mailako
zikloak
Espezializazioak



Elgoibar

Maiatzak 7

11:00etan

Informazio saioa

Hartu lekua!



BISITA GIDATUAK

Maiatzaren 2tik 6ra

GOI MAILAKO ZIKLOAK M2
ERDI MAILAKO ZIKLOAK M3,4,5

*info gehiago gure
webgune eta sare
sozialetan*



943 20 32 44
eibar@armeriaeskola.eus
www.armeriaeskola.eus



“Etorkizun baten oraina”



ArmeriaEskola^x

ARGITARATZAILEA:

Euskal Birusa
Elkarte Kulturala.

HELBIDEA:

Erdikokale zeharbidea 2, 1.
247 posta-kutxa
943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com
www.euskalbirusa.eus

ERREDAKZIO TALDEA:

Estibalitz González,
Eneko López,
Nahia Ruiz Albizuri,
Jon Saez,
Libe Solozabal
eta Dorleta Vidal.

KOORDINAZIOA**ETA MAKETAZIOA:**

Dorleta Vidal.

AZALEKO ARGAZKIA:

Malen Olañeta.

LAGUNTZAILEAK:

Antonio Hernández 'Cuco',
Kaltxango AEK Euskaltegia,
Learreta-Markina eskola,
Patxi López eta
Valentín Mugarza.

ARGAZKIAK:

Piedi Cortazar,
Estibalitz González,
Eider Itarte,
Juanan Izagirre,
Kaltxango AEK Euskaltegia,
Learreta-Markina eskola,
Mallabia FT,
Ainara Mallagarai,
Valentín Mugarza,
Malen Olañeta,
Nahia Ruiz Albizuri
eta Dorleta Vidal.

PUBLIZITATEA:

943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com

INPRIMATEGIA:

Gertu Koop. (Oñati).

BANAKETA:

Alazne Goikoetxea,
Piedi Izagirre
eta Mohamed Hdidou.

TIRADA:

2.425 ale.

ISSN:

1133-973X.

LEGE GORDAILUA:

SS-213/1994.

*Drogeten iturrik ez du
bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako
iritzien erantzukizunik.*

Bertoko kantuak

Herritarron ahotik

Gaia: Kantu politikoa

Eibartikan urten genduan

(Entzuteko: www.alboka.es)

Eibartikan urten genduan
antxintxiketan Deustura,
Deustutikan estu ta larri
juan giñan Cabezona.
Cabezonetik Borinesera,
Borinesetik Navarra,
Navatikan Avilesera,
Avilesetik barrura.

Eibartikan urten genduan
gerri honen igesi,
Asturiasen agertu giñan
mundu guztian barregarri.
Eibartarrak baño azkarragoarika
ez dotela nik ikusi,
zaratatxo bat entzun orduko
hor ziran danok igesi!



Hilabete honetan...

GURETIK MUNDURA 4 Eider Itarte (Txile)	IRITZIA 16 Korrika eta gorputza (Julene Irazu)
ELKARRIZKETA 5-7 Piedi Cortazar	ESKOLEN TXOKOA 17 Learreta Markina eskola
MALLABIAN ZER? 8-9 Itzulia Women Mallabian	ELKARRIZKETA - DKT .. 18-19 Carmen Anderson
MOTZEAN 10 Pirritx, Porrotx eta Marimototsek Euskal Birusa eta Antxintxiketan omendu zituzten	ANTZINAKOAK 20 Ermuko eta Mallabiko argazkiak
KORRIKA 12-14 Ermuko eta Mallabiko argazkiak	ZORION-AGURRAK 21 Saldu, erosi edo agurtu
KIROLZALE 15 Malen Olañeta	MAIATZEKO AGENDA.. 22

Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA



MALLABIKO UDALA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Eider Itarte

Eider Itarte ermuarra otsailean joan zen Txilera, Erasmus programan parte hartzeko Psikologiako karreran. Bertan dagoenetik atentzia eman dio zein aktibo dauden bertako mugimendu sozialak, eta aitortzen du oso hunkigarria izan zela M8a bertan bizitzea.

- Duela zenbat denbora eta zergatik joan zinen Ermutik? Otsailaren 9an heldu nintzen Txilera, Erasmus programa dela-eta. Hala ere, martxoan hasien nintzen klaseekin, beraz otsailean Txiletik bidaiatzeko aprobetxatu nuen. Hasiera batean uztailean etorri behar nintzen, baina COVID-19a dela-eta, mugak itxita egon ziren eta 2. lauhilekora atzeratu behar izan nuen bidaia.

- Erabaki erraza izan zen? Bai. Psikologiako 3. mailan nago, baina karrera hasi aurretik banekien Erasmusa egin nahi nuela, esperientzia eta aukera izugarria da-eta. Banekien ez nuela Europako herrialde batera joan nahi: etxetik joatekotan munduko beste puntara izan behar zen, eta Erasmusak milaka aukera ematen ditu. Txile edo Bolivia ziren nire gustukoena.

- Nola imajinatzen zenuen Txile? Aurreiritzirik zenuen? Valparaiso ikaragarria da! Kaleak muralez beteta daude, eta denek transmititzen diote mezu bat gizarteari. Hemengo jendea oso eskuzabala da eta Txileko historia kontatzeko prest daude beti. Hala ere, ezberdintasun handiak igarrituen heldu nintzenean: ez da Europa bezalakoa eta hasieran aurreiritzi asko agertu zitzaizkidan. Hausnarketa egiteko momentua izan zen, aurreiritzi horiek guztiak ezabatzeko, eta horri esker autokritika egin eta konturatu nintzen, gero eta gehiago, gizarte etnozentrismo batean bizi garela. Gizarte-harremanei dagokienez, ezberdintasun asko daude. Askoz ere irekiagoak dira eta harremanen inguruko kontzeptu ezberdina dute: zaintza eta elkartasuna garrantzitsuak dira. Mugimen-



du sozialak oso aktibo daude, eta oso hunkigarria izan zen M8a hemen bizitzea.

- Zerbait botatzen duzu faltan?

Ez. Hemen denbora oso azkar pasatzen da, eta une oro gaude estimuluz inguratuta. Harreman oso sendoak sortu ditugu, eta sentitzen dut familia bat sortu dugula, beraz berotasun handia dago gure artean. Oso polita da mundu osoko jendea ezagutzea eta harreman sendoak garatzea. Askok ikasi dut horretaz hemen.

- Nolakoak dira zure egun arrunt bat?

Astelehenetan eta asteartean klasera joaten naiz, bi egun

horietan bakarrik ditut jardun osoko klaseak. Eskolan ez nagoenean, bertako jendea eta ohiturak ezagutzeko aprobetxatzen dut. Erasmuseko zein Txileko lagunekin egoten naiz, eta aisialdia horretan eta bidaiatzen ematen dut. Datoren astean, esaterako, Perura joango gara hamar bat egun.

- Ermura bizitzera bueltatuko zarela uste duzu?

Bai. Erasmus programa dela-eta etorri naiz, baina Psikologiako azken urtea egin behar dut oraindik. Hala ere, argi daukat Latinoamerikara bueltatuko naizela.

Nahia Ruiz Albizuri

SAN ANTONIO OKINDEGIA GOZOTEGIA

Izelaiaeta, 40 Tel. 17 00 63

AMAIA HARATEGIA

Bertoko Okelak

Probaleku 5
Tfnoa. 943 17 05 84
Ermua

AIZ

AIZ Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

IKASTOLA
1968tik Ermua
euskalduntzen

elkarrizketa



Piedi Cortazar, Cosme Cortazarren arreba:

“Cosme anaia eszenatokian eraldatu egiten zen”

Gidoilari, aktore, antzerki-irakasle eta zuzendari, eszenografo, produktore, margolari... sortzaile polifazetiko eta inkonformista, interpretazioa ezohiko ofizioa zen sasoian, bere bidea egiteko ausardia eta adorea izan zuen. Cosme Cortazarren ibilbide eta aktore lana hainbat sarik goraiatu dute eta 1991 urtean mailarik gorenera iritsi zen Oscar sarietarako aurre-izendatua izan zenean bera protagonista zen *Jericó* filma.

Bere jaiotzaren 75 urteurrena bete den hilabete honetan, nebaren gainekoak gogora ekartzen Piedi arrebak lagundu digu.

Beste behin teloa zabaltzera doa, "Txispas"!

- Umetan igartzen zitzaien aktore sena?

Mundu guztiak esaten zuen zer-bait bazuela. Berezkoarekin jaio zen, ez zuen sekula ikasi aktore izateko, Madrilera joan zen arren. Egun osoa zegoen buruari eragiten, sortzen... Junior tailerlean egiten zuen lan, eta egunero ohera joan aurretik txiste edo bineta bat asmatu beharra zuen. Amak haserre egiten zion, lokartze-ko, goiz altxatu behar zela... baina pentsatutakoa marraztu arte ez zen oheratzen. Hurrengo egunean Olga Olañetaren kioskoaren kristalean ipintzen zuen, eta jendea espresuki ha-xe ikustera joaten zen. Gero-ra, bere txisteetako batzuk *El Jueves* eta *La Codorniz* aldizkarietan argitaratuko zituzten.

- Ermuan, antzerki edo zarzuelaren batean parte hartu zuen?

Bai, parrokiako saloian, arku-pearen gainean zegoen lokalean lagun talde bat batzen zen, eta eurak asmatutako gauzak antzezten zituzten. Argazkiren batzuk ere badaude.

- Madrilera joan zela esan duzu...

Bai, aitari esanda zion ez zuela bizitza osoa makina bati lotuta egoterik nahi, 8 ordu jo eta ke lanean, artista izan nahi zuela, eta ezetz aitak. Gurasoei tailerretik etorri zitzaizkien esaten ere langile ona zela,

baina burua txoriz beteta zuela eta ametsok kentzen ahale-gintzeko. Zorte txarrez gure aitak istripu bat izan, eta 47 urterekin hil zen. Amak orduan baimena eman zion, bere bizitza zela eta aurrera! Madrilan antzokiz antzoki ibili zen eta behin topatu zuen entseguak egiten ari zen lagun talde bat. Egutuko joaten hasi zen, ez-kutuko leku batetik eszenatoki-ko haratz-honatz guztiaz jabetuz. Inork ez zekien han zegoenik. Estreinatzeraz zihozela, aktoreetako bat gaixotu egin zen eta, bertan behera uztea erabakitzen ari zirela, Cosme bere gordeleketatik irten eta falta zenaren papera bazekiela esan zien, harena eta gainontzekoena ere. Sinistu ezinik, froga batzuk egin eta berak estreinatu zuen lana! Beraiekin geratu zen, Tábano taldearekin, eta *Castañuela 70* antzezlanaren taularatu zuten, arrakasta itzelarekin. Frantziako garai gordin haietan, Elizarekin sartzen ziren; lan ausarta eta transgresorea zen eta debekatuta ere egon zen. Militarrak sartu zitzaizkien antzokian behin eta atrezzo guztia apurtu zieten. 1973an antzezlanaren Caracaseko Jaialdira eraman zuten eta taldeko bi lagun bertan geratu ziren, tartean Cosme, Venezuelarekin zeharo maiteminduta.

- Madrilan ze beste lanetan hartu zuen parte?



Venezuelan, Rajatabla taldeko kideekin.

Aita Santuaren papera egiten zuen *Ella* izenekoak, Ermuan ere antzeztu zuena eta berak idatzi, antzeztu eta zuzendutako *La menina desnuda*, urte betez programatua egon zena Madrilgo Alfíl antzokian.

- Venezuelan, ze konpainiarekin aritu zen?

Rajatabla taldearekin, eta 40 antzezlan taularatu zituzten elkarrekin. Horiez gain, Mimi Lazorekin, han entzute handiko aktorea, telebistarako *La madame* telesaila egin zuen, oso arrakastatsua izan zena eta Jose Luis Rodríguez "El Puma" rekin *Piel* telenobela hartu zuen parte. Anuntzioak, filmak, laburmetraiak... denetik. Antzerki-irakasle ere aritu zen Caracaseko Antzerki Tailer Nazionalan. Rajatablaren antzezlanak jaialdiz jaialdi aurkezten mundua korritu zuen: Frantzia, Espainia, Italia, Holanda, Uruguai, Brasil, Kolonbia, Kuba... Fidel Castro berberarekin bazkaldutakoa da.

-Zerk erakarri zion Venezuelatik?

Bertako klimak eta zentzu guztietako askatasunak. Aidean bertakotu zen eta segituan ikasi zuen bertako azentuarekin berba egiten ere. Taula gainean emandako hogeitertean ikaragarriko arrakasta izan zuen: elkarrizketa mordoa egin zioten eta prentsan etengabea zen bere lanen jarraipena. Aktore bezala zituen ezaugarriak erreparatuta, bertakoen esanetan Robert de Niro euskalduna zen.

- Eszenatokia, zertan nabarmentzen zen?

Eraldatzeko zuen gaitasunean. Burusoilo agertu behar zela, ra, ilea mozten zuen. Andrazkoz azaldu behar zela, haren papelean sartzen zen. Transformatu egiten zen, bai. Berak idatzitako *La historia de un caballo* antzeztu zuenean, eszenatokia benetako zaldia zirudien: mugimenduan, irrintzian, trostan... Ikaragarria! Sari bat jaso zuen hari esker ere.

- Zein paperetan moldatzen zen hobeto, komiko edo dramatikagoetan?

“Antzezlanak jaialdiz jaialdi aurkezten mundua korritu zuen”

CAPRI
PIZZERIA
943 03 33 15

IZASKUN TXURRUKA
Goienkale 9 Bajo
48260 Ermua Bizkaia
94 317 66 90
peluqueriaizaskun@gmail.com
peluqueriaizaskun.wordpress.com

SAN PELAYO
HORITZ KLUBA + CLINICA DENTAL
Zuri egokitzen den odontologia
La odontología que se adapta a ti
Dra. OLATZ GARCÍA ARREGUI Col. nº 1264
943 17 04 04
info@clinicasanpelayo.com
Programa Ayuda Dental Infantil Gobierno Vasco
San Pelayo Zeharkalea 5
48260 Ermua (Bizkaia)

Berdin zitzaion, edozeinetan. Proposatutako guztiari baietz esaten zion. Barregarri zein tragiko, nahi beste erregistrotan moldatzeko trebetasuna zuen.

- Saririk jasotakoa da?

Aktore onenari izendapenarekin hainbat eman zizkioten: Venezuelan 1978an Kritikarena, 1979an Juana Sirgo, 1990an Méridan eta Caracasen ere, 1991an New Yorken jaso zuen beste bat... *Jericó* filma Donostiako Zinemaldian saritu zuten, Biarritzen ere, eta 1991an Oscar sarietarako aurre-izendatua izan zen, atzerriko pelikularik onenaren saillean.

- Margolari bezala ere aritu zen, ezta?

Bai eta Venezuelan estima handitan zituzten bere koadroak. Transgresorea izan zen beti eta lanotan ere bere kritikotasun zorrotza islatzen zuen. Bere margolan guzti-guztiak Rajatablaren antzokian gordetzen dituzte, horma bat puntarik punta dute haren koadroekin apainduta.

- Gaixotasun larri batek gogor harrapatu zuen...

Bai. Donostiara *Jericó* aurkeztera etortzekotan zen, eta ez zen azaldu. Berak garrantzia kentzen zion arren, ordurako gaixo zegoen. Hesteetako

“Aktore sena ikaragarria zuen, berezkoa”

minbizia zuen. Dena den, ebakuntza bat egin zioten eta beharrez jarraitu zuen. *Piel*, esaterako, haren ostetik grabatu zuen, eta film labur bat ere, horrelako gauzekin bizitza normala egin ahal dela aldarrikatzen. Gure amak gero Caracasen sei hilabete eman zituen, eta Cosmek bere azken margolana ohean margotu zuen, amak koadroa eusten zion bitartean. Egun baten deitu zidan, neba bizirik ikusi nahi banuen joateko esanez, eta bere azken hilabete eta erdian bere ondoan egon nintzen.

- 46 urte egin baino astebebe lehenago hil zen, 1993an. Egun haietaz zer gogoratzen duzu?

Bere indarra, bere bizi izateko eta borrokatzeko gogoia. Ibili ezinik geratu zen eta, gurpila ulkian egonda ere, aurrera jarraituko zuela errepikatzen zuen. Goizero etxera zetorkion sendagilea ere harrিতта zeukan. Gero amatatzen joan zen eta bere azken hitzak “zabaldu leihoak eta jarri musika!” izan ziren. Musikarekin esan genion agur elkarri.



Eszenatokirako prestatzen.

- Venezuelako antzerki zuzendari batek esango zuen goitik beherako aktorea zela, eta ez zegoela antzerkigintza horrelako figura handiak galtzeko.

Bai, bertan oso maitatua eta aintzakotzat hartua zen. Hori da, figura handia bezala kontsideratua zegoen. Hil zenean, antzokian hilbeila jarri zuten; zenbat jende pasatu zen bertatik! Egun osoan zehar jardun zuen hango telebistak bere gaineko aipamenak egiten. Amak eta biok Caracasen lurperatzea erabaki genuen, bertan zoriontsu eta libre izan zelako.

Estibalitz González



Hainbat sari jaso zuen *Jericó* filmean.



ZUZENBIDE KONTUAK

Lege eta kontu aholkularitza

Izarra Centre eraikina

Tel: 846080080

Mugikorra: 688885435

zuzenbidekontuak@gmail.com

Ilapaindegia
Estetika

Tel: 943 03 17 56 Diputazio, 5 ERMUA

Eskuz egindako terapietan adituak

ARTROS
FISIOTERAPIA MANUAL

Probaleku 5 · 48260 · Ermua
617 680 156
www.artrosermua.com

Psikologia
Ongizate pertsonalerako zentroa

GUZTIOK
Nahia Rojo Bustindui
Psikologoa eta Sexologoa

Zubiaurre 40 · Ermua
Hitzordua: 688 85 18 95

HARATEGIA - URDAITEGIA

MIGUEL

BERTAKO OKELAK ETXEAN EGINDAKO TXORIZO TXISTORRA ODOLOSTE ETA KROKETAK

PROBALEKU 3 - 943 170563
ERMUA

Itzuliaren emakumezkoen probak ere Mallabia zeharkatuko du

Itzulia Mallabira bueltatuko da datorren hilabetean. Izan ere, maiatzaren 13tik 15era emakumezkoen lehen Itzulia burutuko da, UCI Women's World Tour kategorian, eta horren baitan egingo den bigarren etapak Mallabian izango du irteera eta helmuga, maiatzaren 14an. Antolatzaileen esanetan, "etapa erregina" izango da Mallabikoa.

Itzulia egitasmoko bi probetan protagonismo berezia izan du Mallabiak aurtan. Itzulia Basque Country deritzon gizonezkoen proban, San Pedron bukatu zen 5. etapa apirilaren 8an; hilabete geroago, Itzulia Women emakumezkoen probako etapa bat Mallabian hasi eta bukatuko da, maiatzaren 14an, larunbata.

Egun horretan, World Tour eta Kontinental mailako txirrindularirik onenak izango dira lehian Mallabian, eta 118 kilometro egingo dituzte bertan: hirugarren mailako bost mendate puntuagarri (Areitio, Montecalvo, Bizkaiko Balkoia, Milloi eta Trabakua) eta lehen mailako mendate puntuagarri bat (Karabieta) igo beharko

dituzte. Aurreko egunean Araban izango dira (Gasteiz-Bastida etapa, 105 kilometro), eta biharamunean Gipuzkoan (Donostia-Donostia etapa, 139 kilometro). Guztira 3 etapa eta 363 kilometro egingo dituzte bizikletan.

Roberto Laiseka txirrindulari ohiak diseinatu ditu etapak, eta haien aurkezpena egin zuen apirilaren 26an Gasteizen. Bertan azaldu zuenez, Mallabiko etapa erabakigarria izango da bere ustez, eta lasterketa egun horretan erabakiko da. Etapa "nagusia edo erregina" izango da Mallabikoa haren esanetan: "Gorabeheratsua da erabat. Ez dago zati bat bera ere orekan, dena da gora eta behera", laburbildu zuen.

"Herriak sentsibilitate berezia du txirrindularitzarekiko, eta oso ondo erantzun du"




Mallabia fokupean

Mallabiko Udalak iazko irai-lean jaso zuen etapa hauek *esponsorizatze*ko proposamena Oceta enpresaren eskutik eta, aurrekontua onartu eta gero, lanean hasi ziren. Bertako alkatea den Igor Agirrek azaldu duenez, oso pozik jaso zuten proposamena, nazioarteko probak direlako eta Mallabia "fokupean" jartzen dutelako. Horrez gain, Agirrek azpimarratu du herrian goi mailako bi txirrindulari izan direla (Mikel Pradera eta Gorka Arrizabalaga), eta herriak sentsibilitate berezia duela txirrindularitzarekiko. Horrekin batera goraipatu du herriak emandako erantzuna lasterketaren egunean.

Emaitzaren atzean lan handia dago, eta prestaketa ez da samurra izan. "Mallabian lekua mugatua da, eta lasterketak espazio handiak eskatzen ditu: autobusak, kamioiak, kotxeak, komunikabideen beharrak... Zoramena izan da, baina gustura egin dugu".

Gizonezkoen proba garrantzitsua izan bada, emakumezkoena ez da gutxiago izango. Izan ere, Agirrek honen berezitasunaren hainbat alderdi nabarmendu ditu. Alde batetik, lasterketaren lehen edizioa izango dela; bestalde, etapa bakoitza probintzia batean burutuko dela, Bizkaikoa Mallabian kokatuz.

Dorleta Vidal



BIXENTE AMESTI EGUREN

2022ko apirilaren 23an

Euskal Biruseko lantaldea



MERTXE OLALDE MARGOLARIA ZENDU DA

Alargundu ostean eta 74 urteak beteta, margotzeari ekin zion. Bere jardunagatik eredu bihurtu da adin eta egoera beretsuan dauden pertsonentzat, zahartzaro aktiboa posible dela eta bitzita koloreztatzerik bada goela erakutsiz. Eta horrelakoxeak dira bere olio-pinturak: biziak, koloretsuak, argitsuak... Bere mihise asko pintore entzuetatsuen erreprodukzioak izan arren, tartean ez dira falta loreak, txoriak, arte afrikarra eta japoniarra, ballet dantzariak... eta zelan ez, Ardantza baserria, jaiotetxe kuttuna. Bere birbilobentzako txoriak margotzen zituen, eta etxe bakoitzean txantxangorri desberdina dute. Margolan guztiok ikusgai egon dira bizileku zuen Durangoko erakusketan.

Berau zabaldu baino 5 egun lehenago zendu da, eta senide eta lagunen topaleku bihurtu da Ezkurdiko aretoa. Mallabitarren azken 22 urteetako arte bildumaz gozatzea izan da eskaini ahal zitzaion omenaldirik ederrena.

**AURTENGO FRONTENISEKO MARATOIAK BADITU IRABAZLEAK**

Martxoko azken asteburuan frontenis txapelketa bikoitza jokatu zen Mallabiko frontoian. Hilaren 26an, larunbata, bikote mistoen txanda izan zen, eta Andrea Arnaiz (Burgos) - Adrian Viribay (Haro) bikoteak eskuratu zuen txapela eta 300 euroko saria, aurkariei 16-9 irabazi eta gero. Aurkariak Jesus Domínguez - Gwenaelle Cenicerros (Iruñea) izan ziren hain zuzen ere, eta hauek garaikurra eta 200 euroko saria jaso zuten. Igandean, martxoak 27, Euskadiko Emakumeen Txapelketa jokatu zen, eta Mireia Rubio - Maitena Mañarikua




(Elgeta) bikoteak lortu zuen garaipena, Ihintza Imaz - Maialen Ezeolaza (Ormaiztegi) bikotea mendean hartu eta gero. Lehenengok txapelak eta garaikurrak jaso zituzten, eta bigarrenek garaikurrak.



FEREDU

SOLUTIONS S.L.



- * HEZETASUNAK
- * ERREHABILITAZIOA
- * INPERMEABILIZAZIOAK
- * MANTENIMENDUAK
- * IGOGAILUAK
- * ERREFORMAK
- * FATXADAK
- * ITE
- * TEILATUAK
- * GARBIKETAK

www.feredusolutions.com
699 476 112 / 946 423 649 ERMUA

CARLOS TAIBOK *RUSIA FRENTE A UCRANIA* LIBURUA AURKEZTUKO DU MAIATZAREN 18AN

Carlos Taibo idazleak *Rusia frente a Ucrania. Imperio, pueblos, energía* liburua aurkeztuko du Lobiano Kulturgunean maiatzaren 18an, 19:15ean, Komite Internazionalistak taldeak antolatuta. Taibo aktibista, idazle, editore eta Politika eta Administrazio Zientzietako irakaslea da Madrilgo Unibertsitate Autonomoan. Ideologia libertariokoa, 30 liburu baino gehiago idatzi ditu, gehienak ekialdeko Europako trantsizioei eta zentzugabekeria kapitalistaren ondorioei buruzkoak.

XIV. VERTIGOROCK JAIALDIA BURUTUKO DA MAIATZAREN 13AN ETA 14AN

Edizio honetan hurrengo taldeek joko dute: Wormed, Cerebral Effusion, Teething eta Nakkiga (maiatzaren 13an); Dagoba, Vita Imana, Rise to Fall, Ehun Kilo, Incursed, Blaze Out, Cien Duros eta Slide (14an). Kontzertu guztiak Beñondon izango dira, doan, eta ordutegiak zehazteko daude.

Euskal Birusak maiatzean kobratuko ditu urteko kuotak

Euskal Birusa Euskara Elkartek maiatzean kobratuko die bazkideei urteko kuota. Hori dela-eta, helbidea edo kontu korronteko zenbakia aldatu dutenek Elkarteari jakinarazi beharko diote (943 17 93 50 telefonoan edo euskalbirusa@gmail.com helbidean). Bazkideek egiten duten diru-ekarpenari esker, euskarazko hainbat jarduera antolatzen ditu Euskal Birusak urtean zehar, tartean San Juan Sua, San Martin Azoka, Berbetan Jardunaldiak eta Hartza Eguna. Bestalde, bazkide izan nahi dutenak aipatutako telefonoan edo helbide elektronikoan jar daitezke kontaktuan Euskal Birusarekin. Animatu lagun!



Eskolabarrik 25. urteurrena ospatuko du

Eskolabari Ikastetxeak maiatzaren 7an, larunbata, ospatuko du bere 25. urtemuga. 12:00etan topaketa egingo dute plazan eskolako ikasleek, gurasoek, irakasleek, langileek, ikasle eta irakasle ohiek eta haiekin bat egin nahi duten guztiak. Ordu horretan hasi, eta 14:00ak arte Irulitxa txarangak kalejira egingo du, eta tarte berean eta 16:00etatik 18:00ak arte, puzgariak egongo dira plazan umeentzat. 17:00etatik 19:00etara Antxixiketan begirale taldeak animazioa eta tailerrak eskainiko ditu, eta bukatzeko, 17:30etik 20:30era diskofesta egongo da Dantzatzeko prest taldearekin.

Pirritx, Porrotx eta Marimototsek Euskal Birusa eta Antxixiketan omendu dituzte

Korrika Kulturalaren egitarauaren barruan, bi saio eskaini zituzten Ermuan Pirritx, Porrotx eta Marimototsek martxoaren 25ean. Horietako bakoitzean, herriko eragile bat omendu zuten, euskararen alde egiten duen lana eskertzeko: Antxixiketan eta Euskal Birusa, hain zuzen ere. Bi talde hauetako ordezkariak egurrezko habiak jaso zituzten, eta horietan eskuz idatzitako mezu hau: "Eskerrik asko euskarari habia goxoak egiteagatik".



Egaña

ETXETRESNA ELEKTRIKOEN
SALMENTA ETA KONPONKETA

Diputazioa 7 (Ermua) · 943 17 66 08



ORBE TOLDOS Y PERSIANAS

- Toldoak
- Ostalaritzarako muntaiak
- Pertsianak
- Instalakuntzak eta konponketak
- Motorizazioa

- Manparak
- Segurtasun pertsianak
- Pertsiana dekoratiboak
- Estoreak
- Eltxo-sareak

Tailerra:
Zearreko Buelta 2
943 17 66 34 - 630 01 13 41
48260 Ermua (Bizkaia)

Erakusketa: Karabixa 1
48260 Ermua (Bizkaia)
943 17 98 60
persianasorbe@gmail.com



ileapaindegia
Silvia
peluquería

Asteartetik ostiralera
9:00-12:00 15:00-19:00
Larunbata
8:30-13:00

943 170474

688819336

LANBIDE
HEZIKETA
2022-23



UNI
EIBAR
ERMUA



IKASTETXE
PUBLIKO
DOAKOA

AURREMATRIKULA MAIATZAREN 9tik 27ra

GOI MAILAKO ZIKLOAK
 ERDI MAILAKO ZIKLOAK

HEZKUNTZA ESKAINTZA



F

EGOKITZAPEN FISIKOA

GIZARTE ETA KIROL IRAKASKUNTZA ETA ANIMAZIOA



M

NAZIOARTEKO MERKATARITZA
GARRAIO ETA LOGISTIKA

MERKATARITZA
JARDUERAK



A

ADMINISTRAZIOA ETA FINANTZAK
*+ Administrazioa eta Finantzak
eskaintza partziala arratsaldez.*

ADMINISTRAZIO
KUDEAKETA



I

SAREKO INFORMATIKA SISTEMEN
ADMINISTRAZIOA
WEB APLIKAZIOEN GARAPENA
PLATAFORMA ANITZEKO
APLIKAZIOEN GARAPENA

SISTEMA
MIKROINFORMATIKOAK
ETA SAREA

ESPEZIALIZAZIOAK

ZIBERSEGURTASUNA
INFORMAZIOAREN TEKNOLOGIEN
INGURUNEETAN



Otaola Hiribidea, 29 | 20600 Eibar, Gipuzkoa
943 89 92 11 | idazkaritza@uni.eus
@uni.eus



www.uni.eus





Mallabiko lekukoak: Pilota Taldea, Mendibil Abesbatza, Gazte Alai Dantza Taldea, Biharko Izarrak, Jubilatu Elkartea, Mallabiko Udala, Goimek, Mallabiko Eskola eta Gurasoen Elkartea, Mallabiko EH Bildu, Askalde, Txondor Herri Kirolak, Mallabiko Berbalagun, Nahikari Emakumeen Elkartea eta AD Mallabia FT.

Plan B
Coffee Lounge Gin & Beer

Torrealday
ZURE FINANTZA-OSASUNERAKO BAZKIDE ESTRATEGIKOIA
ZERGA, LAN ETA KONTABILITATE AHOLKULARITZA ERMUA



HEZKUNTZA ESKAINTZA 2022/23

ATE IREKIAK
MAIATZAK 5 eta 6

* Eman izena web orrian

AURREMATRIKULA
MAIATZAK 9tik 27ra

Informazio gehiago:
www.meka-elgoibar.net

MEKA ALBITZURI ERAIKINA
Albitzuri poligonoa, 24
20870 ELGOIBAR
Gipuzkoa

MEKA EZENARRO ERAIKINA
Arregitorre kalea, 2
20870 ELGOIBAR
Gipuzkoa



GOI MAILAKO ZIKLOA

- ADMINISTRAZIO ETA FINANTZAK
- METAL ERAIKUNTZAK
- GIZARTERATZEA
- GENERO-BERDINTASUNA SUSTATZEA
- HAUR HEZKUNTZA
- DIETETIKA
- AUTOMOZIOA

ERDI MAILAKO ZIKLOA

- ADMINISTRAZIO KUDEAKETA
- SOLDADURA ETA GALDARAGINTZA
- MENDEKOTASUN EGOERAN DAUDEN PERTSONEI ARRETA
- ERIZAINZAREN LAGUNTZA
- MAKINERIAREN ELEKTROMEKANIKA
- KARROZERIA
- IBILGAILU AUTOMOBILEN ELEKTROMEKANIKA

ESPEZIALIZAZIO KURTSOA



- IBILGAILU ELEKTRIKO ETA HIBRIDOEN MANTENUA


bulegoa@meka-elgoibar.eus
Telf. 943 748 019
www.meka-elgoibar.net





Ermuko lekukoak: Errealzaleak, Euskal Birusa Euskara Elkarte, Bertso Eskola, Tenneco Innovación, Tennecoko Langileak, Artarrai Mendi Taldea, Akerlei Akademia, Berbalagun, Gazte Mugimendua, Txindurri Dantza eta Txistu Taldea, Emakumeen Asanblada eta Zipristintzen Berdintasunaren Aldeko Gizon Taldea, Ermuko EH Bildu, Alboka Musika Eskola, Infreñu Taberna, Gipuzkoako Urak, Ermuko Udala, Merkatarien Elkarte, Errotabari Eskubalo Taldea, Antxixiketan Euskal Begirale Taldea, Ermuko EAJ, Ikastolako Guraso Elkarte, Elkartasun Taldea, Eskoletako Langileak, Herri Muga eta Elkarte Gastronomikoak.



CITROËN
AUTOS AMEDI

Zearreko buelta eraikina 3, L8 pab.
Telefona 943 17 04 14

ITURGINTZA - GASA - BEROKUNTZA
PALACIOS SM



ENPRESA INSTALATZAILE BAIMENDUA
GREMIOEN KUDEAKETA
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

San Pelayo 26, behea · Ermua (Bizkaia)
info@palaciosfontaneria.com / www.palaciosfontaneria.com

660 72 95 03 · 659 75 74 59 · 943 53 92 23

Bitxi-denda Tailer propioa Erloju-denda



Senén
1978

Diseinuak eta kalitateak bereizten gaituzte

San Pelayo zeharbidea 4 ERMUA (48260) BIZKAIA
www.joyeriasenen.com - joyeriasenen@gmail.com

Ferreteria
ANBOTO
Burdindegia

Orain **KOTXEKO GILTZEN KOPIAK** ere egiten ditugu



943 17 69 76
607 33 11 77

ZUBIAURRE, 25 ERMUA (BIZKAIA)
www.ferreteriaanboto.es



DC Horacio Decoración
TAPIERIA - ALTZARIAK - OSAGARRIAK

VI Centenario 10 - Ermua
943 03 15 80
www.dghoraciodecoracion.com

Malen Olañeta, futbolaria:

“Inoiz baino gehiago gozatzen ari naiz futbolaz”

19 urte ditu Malen Olañeta ermuarrak, Eibar B taldean jokatzen du txikitatik, eta aurten bere kategoriako urrezko baloiaren irabazlea izan da. Futbolzalea eta kirolaria, INEFeko ikasketak egiten hasi da aurten Gasteizen. Asteazkenean bi orduko entrenamenduak izaten ditu lau egunetan, eta asteburuetan partiduak jokatzen ditu.

- **Noiz hasi zinen futboleant?**

Hamar urte daramatzat futboleant. Ikastolako patioan futbolera jolasten nuen beti, asko gozatzen nuen eta nahiko ona nintzen. Zortzi urte nituela mutilekin jokatzen hasi nintzen Ermuan baina, handik urtebetera, Eibarko emakumezkoen alevin taldean sartu nintzen. Orditik ez naiz futbol mundutik atera.

- **Nor izan duzu erreferentea?**

Txikia nintzenetik gustuko izan dut Leo Messi. Hala ere, futbol-partida gehiago ikusiz joan ahala, eta emakumezkoen futbola garatzen joan denez, Alexia Putellas eta Bartzelonako jokalaria asko ditut erreferente gaur egun.

- **Eibar B taldea lehenengo postuan dago gaur egun, 67 punturekin eta partidurik galdugabe. Nola ikusten duzu txapelketa?**

Gure mailako taldeek kalitate eta indar handia dute. Hala ere, taldekideen artean dugun harremana oso estua da, bai zelai barruan bai zelaitik kanpo ere, eta horrek partiduak aurrera ateratzen lagundu digu. Txapelketan erakutsi dugun mailak agerian utzi du ligako talde indartsuena garela.

- **Anaitasuna taldea bigarrena da 50 punturekin, beraz, txapelketa matematikoki irabazi duzue jada. Zein helburu duzue orain?**

Hala da. Garaiz dirudien arren, orain dela bi jardunaldi irabazi genuen txapelketa matematikoki. Egungo erronka da txapelketa partidurik galdugabe amaitzea. Dena den, aitortu behar dut Anaitasunaren kontra jokatutako partiduak ligako gogorrenak izan zirela.

- **Zure kalitatea dela-eta, zelaierdiko edozein postutan**



jokatu dezakezu. Non sentitzen zara erosoan?

Futboleant hasi nintzenetik postu gehienetan aritu naiz. Orain dela hiru urte pibote moduan probatu ninduten eta, gustura sentitu nintzen, bertan jokatzen jarraitu dut. Hala ere, batzuetan punta-erdian jokatzen dut.

- **Nahiz eta aurrelaria ez izan, bost gol egin dituzu. Esango zenuke izan duzun denboraldirik onena dela?**

Bai. Goletatik aparte, oso eroso sentitzen naiz jokatzen, eta futbolaz inoiz baino gehiago gozatzen ari naiz. Ondorioz, maila altua eman dut denboraldian zehar.

- **Orain arte Ohorezko Kadeteko txapeliduna izan zara, Donosti Cup txapelketa irabazlea eta Euskal Ligako urrezko baloia lortu duzu. Zein da Malen Olañetak eman behar duen hurrengo pausua? Nire helburua da goi mailara jauzia egitea. Badakit zaila de-**

la, eta lan handia egin behar dudala, baina segurtasun osoz esan dezaket horrela jarraituz gero, nire helburutik gertu egongo naizela.

- **Horren harira, Eibarko lehen taldearekin debutatu zenuen ia. Zer suposatzen duen esperientzia hori 18 urteko neska batentzat?**

Esan zidatenean lehen taldearekin jokatzeke hautatu nindutela, egun batzuk eman nituen urduri. Berotzen hasteko agindu zidatenean ezin nintzen ia mugitu, baina behin zelaira atera nintzen, partiduaz gozatu nuen.

- **Zer egiten duzu futboletik kanpo?**

INEF ikasten dut Gasteizen, eta, entrenamenduak direla-eta, joan eta etorri egin behar dut egunero. Aisialdian, lagunekin eta familiarekin egotea dut gustuko, ez baititut asko ikusten

Eneko López

ARKITEKTURA ESTUDIOA
BERRITZE LANAK ZURE ERAIKINEAN
Ez dakizu nondik hasi?
GURE LANTALDE TEKNIKOAK
LAGUNDUKO DIZU
ZUK ERABAKI
www.spara.es
info@spara.es
943 17 70 57
Probaleku, 4 Bis, Bajo 48260 Ermua - Bizkaia

KARABIXA
KARABIXA KAFETEGIA
Egunero 8:30etik aurrera zabalik

Korrika eta gorputza

Ostiral guztiak bezala, jaiki, prestatu eta lanera joan naiz; baina gaur ez da ostiral arrunta, gaur Korrika eguna da. Ez dit denborarik eman laneko gauzak antolatu eta Korrikara joateko, baina lanean nagoela, berriak segituan abisatu dit Korrika datorrela.

Leihotik begiratu dudanean hainbat lagun ikusi ditut *furgoaren* atzetik korrika, eta horietako pertsona bakoitza banaka-banaka aztertzen hasi naiz teknikoki, korrika egin ostean zein min izan dezaketen pentsatzen. Batzuk gerriko mina izango dute, oinetakoa, belaunekoa, orkatilakoa edota tendinitisa; beste batzuk postura de-

segokian egiten dute korrika, beste hark herniaren bat izan lezake... eta buruko pelikulak milaka aukeretara eramane nau. Zenbatetan entzuten da emakumea eta inpaktodun kirola osasuntsua den edo ez!

Lesio mota ugari daude, baina denok ez ditugu denak jasango. Hala ere, gorputza oreka batean mantendu behar da eta disziplina derrigorrezkoa da, ahalik eta lesio gutxien jasateko; muskulu-tonu egokiak presioaren gestio egokia emango digu, eta horrela korrika egitean edota bestelako ariketa fisikoen jardueran ez dugu zertan lesio gehigarrikerik edukiko, denborak eta norberaren zaintzak edo honen ezak eragiten dituztenetaz gain.



Julene Irazu

Eta pentsatzen hasita, zenbatek pentsatu dugu aurten kirola egiten hasiko ginela? "Oporretatik bueltan, jarduera berri batean emango dut izena", eta bakarrik edo lagunekin zerbaitetan hasten gara. Eta noiz hasten gara huts egiten? Uste baino lehen, tamalez.

Gaur egun guztiok dakigu kirola egitea osasuntsua dela, baina batzuk adinagatik, eta beste batzuk gizarteak agindutako zereginen menpe bizi direlako, ez da erreza jakitea nola hasi eta nola eutsi "betebehar" berri horri. Eta bai, hasiera batean betebehar bezala hartu beharko genuke: jatea edo lo egitea bezala. Eta lehenetsuna eman beharko genioke, gorputzean sortzen dituen onurei erreparatzen badiegu.

“ Zenbatek pentsatu dugu aurten kirola egiten hasiko ginela? ”



LEIRE RASCO
BIZARTEGIA
ILEAPAINDEGIA
943 17 17 96

Instagram: @LEYTHEBARBER

C/GOIENKALE NS
ERMUA (BIZKAIA)





LEIRE MAYORA
PODOLOGOA

Erdikokale 1, 1. A
48260 Ermua
© 943 17 47 44



ITZE
OPTIKA
AUDIO

Entzumenaren doako azterketak
Audifonoetan azkenengo teknologia

Probaleku, 7 **Tfnoa. 943 17 46 51**

solozabal
tabakoak

torrekua 1
tel./fax: 943 17 07 33



Ika, ika, ika, hemen dator Korrika!



Apirilaren 1ean Korrika 22ak Mallabia zeharkatzen zuela aitzakia hartuta, hainbat jarduera izan genituen. Aurreko egunean, martxoak 31, AEK-k "Familian euskaraz jolasean"

tailerra antolatu zuen, Urtxintxa taldearen eskutik. Eskolako gimnasioan burutu zen tailerra, talde polita bilduz, guztira 25 lagun: 11 heldu eta 14 haur. Esperientzia oso positiboa izan zen, beraz, gehiagotan ere parte hartzeko prest gaude.

Bestalde, ostiralean, eskolako bertsolaritza proiektuarekin lotuta, kantaldia izan genuen 12:00etan, Mikel Inun abeslaria Pello Molina lagun zuelarik, euskal tradizioko hamaika abesti kantatu genituen. Aparteko giroa izan genuen!!!

Eta azkenik, arratsaldean Korrika Txikia ospatu genuen eskolan. Ibilbide motza baina *intentsua* izan zen, burbuilaka, erreleboak emanez. Frontoira heldu ginenean pare bat buelta eman ondoren Korrikaren dan-

tzarekin bukatu genuen, denok batera dantzatzuz. Ostean, jolasak antolatu genituen eta herri kirolak: txokor batzea, txingak, sokatira eta txapel jaurtiketa. Primeran pasatu genuen!!!



Bilboko Guggenheim Museoan



Apirilaren 7an, osteguna, Mallabiko Eskolako LHko ikasleak eta irakasleak Guggenheim Museoan egon ginen, bertan antolatutako "Jean Dubuffet" *art brut* erakusketan. Bisitaldia euskaraz eta ingelesez izan zen. Eguraldia lagun, esperientzia zoragarria izan zen denontzat, artelanez gozatzuz eta elkarrekin disfrutatuz.

Apirilaren 7an, osteguna, Mallabiko Eskolako LHko ikasleak eta irakasleak Guggenheim Museoan egon ginen, bertan antolatutako "Jean Dubuffet" *art brut* erakus-

Berdintasunean kontzienteki hezten

Martxoaren 29an familientzako hezkidetzat tailerra antolatu genuen Nahikari emakume taldearen babesarekin eta Geuk taldearen eskutik. Hamaika familiak parte hartu zuten, balorazioa oso positiboa izan da eta espero dugu honek jarraipena izatea. "Berdintasunean kontzienteki hezten ez denean, desberdintasunean hezten da".



Pix-Pox haur parkea

Martxoaren 24an, HHko ikasleak eta irakasleak Gernikako Pix-Pox txikiparkera joan ginen. Txikientzat emozioz betetako eguna izan zen, eta aukera paregabea izan zuten elkarrekin disfrutatuzeko.

Hamburguesería
TITANIC



*Pintxo dastaketa
poteoan*

Kantabria 2 • Tlf: 17 67 83

ARRIETA CORDEVI

Etxetresna elektrikoak,
telebistak,
musika-ekipoak...

...prezio eta kalitate
ezin hobean.

VI. Centenario kalea, 5 - ERMUA



Goienkale kalea (Ermua)
Tel: 943 172 454

sehiga.proteccionlaboral@gmail.com

Komunitateak

San Pelayo

*Aholkularitza
juridikoa*

Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua



Udal Euskaltegia

Teresa Murga Eraikina
Goienkale z/g 2. solairua
ERMUA • 943 170 925

ermukoudaleuskaltegia@gmail.com



**FOTOKOPIAK
KOLOREZKO FOTOKOPIAK
HANDIPENAK - TXIKIPENAK
PLANOAK - AZALEZTAPENAK
FAX PUBLIKOIA
INPRIMAKETAK KAMISSETATAN**

Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89

Carmen Anderson, Gipuzkoako Dislexia Elkarte kidea:

“Dislexiak ikasketa prozesuari eragiten dio, idazteari eta irakurtzeari”

Carmen Anderson Dislegiko (Gipuzkoako Dislexia Elkartea) kidea da, eta martxoan Elgoibarren izan zen dislexiari buruz hitz egiten, Debabarreneko Dislexia Taldea aurkezteko ekitaldian. Gipuzkoan sortu den eskualde mailako lehen ordezkari da hau, eta nagusiki Elgoibarren lan egingo badute ere, atek zabalik dituzte bailarako gainerako herrientzat ere.

- Dislegiko (Gipuzkoako Dislexia Elkartea) sortzailetakoa bat zara. Zerk eraman zintuen elkarre hura sortzera?

Dislexia duten bi seme ditut, eta haiekin izandako esperientziak bultzatuta, nire egoera berean zeuden beste guraso batzuekin jarri nintzen harremanetan. Nire esperientziak eta beraienak partekatzen hasi ginen, eta horrek eraman gintuen Gipuzkoako Dislexia Elkartea (Dislegi) sortzera. Ni Zeelanda Berrikoa naiz, baina 22 urte daramatzat Euskal Herrian, eta gaur egun Donostian bizi naiz. Hori dela eta, elkarrearen egoitza nagusia Donostian daukagu, baina saiatzen gara Gipuzkoako eskualde guztietara iristen. Orain Elgoibarren sortu dute talde bat Debabarrenean dislexia duten pertsonen laguntzeko eta haien familiak hezteko, ikastexeekin elkarlanean jarduteko eta azken batean, dislexia ezagutzera emateko. Gipuzkoan sortu den eskualde mailako lehen ordezkari da, baina espero dugu azkena ez izatea. Gu denok boluntarioak gara eta zaila egiten zaigu probintzia osora iristea, beraz, horrelako ordezkariak oso garrantzitsuak dira guretzat.

- Talde horrekin elkarlanean, hain zuzen, dislexiari buruzko hitzaldia eman zenuen Elgoibarren. Zer da dislexia? Hizkuntza prozesatzeko garunak daukan zailtasuna da, eta idazteko zein irakurtzeko gaitasunari eragiten dio. Etimologikoki hizkuntzaren zailtasuna esan nahi du, eta gaur egun, irakurtzean ager daitekeen arazotzat hartzen da, baina ez dauka arrazoi intelektual, kultural edota emozionalekin inongo erlaziorik. Ez zaio interes edo motibazio faltari lotu behar, ezta adimen urritasunari ere. Argi utzi nahi dut ikasketa prozesuari eragiten dion nahasmendua dela dislexia, baina ez dela gaixotasun bat.

- Zerk eragiten du dislexia? Genetikak zerikusia dauka, eta horregatik, elkartera etortzen zaizkigun kideei lehenengo galdetzen dieguna zera da: ea familian aurrekaririk duten. Eta gehienetan egoten dira aurrerariak, baina askotan diagnostikatu gabeak. Askok esaten digute bere senideren batek ikasteko arazoak zituela, oso nota txarrak ateratzen zituela, baina oso azkarra zela. Argi utzi nahi dut dislexiak ez daukala adimenarekin zerikusirik. Dislexia duten ume asko oso argiak



dira, bizkorrak eta irakaslearen galderak berehala erantzuten dituzten horietakoak, ahozko hizkuntza prozesatzeko arazorik ez dutelako. Irakurtzean eta idaztean agertzen dira arazoak. Normalean, dislexia duten pertsonen asko kostatzen zaie irakurtzen ikastea, ez dituzte kontzeptuak ondo prozesatzen, kaligrafia txarra izaten dute, ortografia arazoak... Kontzientzia fonologikoa apur bat murriztuta izaten dute pertsona hauek eta horrek sortzen ditu arazoak, baina bakoitzak bere zailtasunak ditu eta ez die denei modu berean eragiten. Batzuek azkarrago irakurtzen dute besteek baino, kontzeptuak hobeto barnerraten dituzte; beste batzuek azkar irakurtzen dute, baina ez dute ezer ulertzen...

- Zein adinetan agertzen da? Haurtzaroan agertu daitezke seinaleak. Esaterako, normalean, beranduago hasten dira hitz egiten, ez dituzte soinuak ondo ahoskatzen, eta silabak jan edo gehitzen dituzte hitzetan... Gauzak izendatzea ere

kostatzen zaie, hau da, zerbait deskribatzerakoan hitz zuzena burmuinetik ahora eramatea kostatzen zaie. Gero irakurtzen eta idazten hasten direnean, seinale horiek areagotu egiten dira: motel irakurtzen dute, atzamarrarekin markatzen dute irakurri beharreko letra edo silaba bakoitza, irakurritakoa ez dute barnerraten... Egia da hitz egiten, idazten edo irakurtzen hasten direnean horrelakoak oso ohikoak direla edozein umerengan, baina horrek ez du esan nahi denek dislexia dutenik. Askotan seinale horiek normaltzat jotzen ditugu eta oharkabean pasatzen zaizkigu, normala delako irakurtzen, idazten edo hitz egiten ikasteko prozesuan zailtasunak agertzea; denek ez dute dena lehenengoan ikasten.

- Zein da orduan dislexia detektatzeko modua?

Irakaslea izaten da normalean jabetzen lehenengoa. Ordu asko ematen dituzte eskolan, eta irakasleak jakiten du hoberen ume bakoitzak zertan daukan zailtasuna. 5-6 urteren buel-

tan detektatu daiteke dislexia. Ikastetxeek test batzuk dituzte umeei probak egiteko, eta diagnostiko zehatza egiteko balio ez badute ere, dislexia izateko arriskuez ohartarazteko balio dute. Eskolaren papera oso garrantzitsua da dislexia detektatzeko.

- Zuzentzen al da dislexia?

Landu egin daiteke, eta eskolaren, familiaren eta logopeda baten laguntzarekin esaterako, asko hobetzen da, baina dislexia ez da zuzentzen inoiz. Ikasi egiten da dislexiarekin bizitzen eta dislexiari izkin egiten. Trikimailuak ikasten dituzte dislexia dutenek eta

horrela moldatzen dira ikasketen prozesuan, baina umetan dislexikoa dena, nagusitzean ere halaxe izango da. Hala ere, lanketa zehatz batzuk eginez dislexikoeak ere ikasten dute ondo irakurtzen, kontzeptuak barneratzen, idazten... Umetan umeak esponjak direla esaten dugu, eta horrek esan nahi du beren burmuinak gauza berriak ikasketako gaitasun handia duela. Baina burmuinaren malgutasun hori 10 urtetik aurrera gutxitzen joaten da; horregatik, garrantzitsua da dislexiaz ahalik eta azkarren jabetzea. Zenbat eta lehenago hasi lanketa horrekin, lehenago ikasiko du irakurtzen,

eta horrek ikasketa prozesua erraztuko dio umeari. Eskoletan Berritzegunetik egiten zaizkie umeei probak, eta bestela, alor pribatutik ere egiten dira probak. Oso garrantzitsua da eskoletan dislexia zer den jakitea eta bere ezaugarriak ezagutzea, ondo bideratu ahal izateko. Familak normalean ez du ulertzen bere seme edo alabak zergatik dituen hainbeste zailtasun ikaste prozesuan eta eskolara jotzen du. Horregatik oinarrikoa da eskolaren papera.

- Zenbat jenderi eragiten dio dislexiak?

Azken ikerketen arabera, mun-

du mailako populazioaren %6-%15ari eragiten dio. Guk datua biribilduta ematen dugu, eta %10eko portzentajea erabiltzen dugu. Dislexia dutenek ahalegin handia egiten dute ikasketako, baina, hala ere, askotan emaitzak ez dira onak izaten eta horrek frustrazio handia eragiten die. Ahalik eta lasterren detektatzea inportantea da, zein egokitzapen behar dituzten jakiteko eta lanak horretara bideratzeko. Beraientzako material egokia prestatzeko asko laguntzen du: orri txuriak eta letra beltza tamaina egokian, besteak beste.

Ainhoa Andonegi (DKT)

Debabarreneko Dislexia Taldea martxan

Gipuzkoako Dislexia Elkartetik sortu dute Debabarreneko Dislexia Elkartea, zenbait familiak zituzten beharrei erantzuteko: "Ikusita hemen inguruan ez zegoela inolako talde edo orientazio zerbitzurik, Dislegiko ordezkariekin batu ginen gure beharrak azaltzeko, eta euren proiektua interesgarria iruditu zitzaigunez aukera polita ikusi genuen Debabarrenean taldea sortzeko". Gurasoak dira taldearen sortzaileak, eta hainbat egoeraren aurrean galduta ikusi dute euren burua, nora jo ez zekitela: "Egoera horretan dagoen jendeari laguntzea da gure helburua, hau da, dislexiari buruzko informazioa zabaltzea eta gure esperientziak partekatzea, horretarako beharra duen edonorekin". Dislexia ezagutzera ematea da euren oinarriko funtzioa. Izan ere, nahasmendu honen inguruan oraindik ezjakintasun handia dagoela uste dute. Familiak prestatu nahi dituzte, eta ikastetxeekin elkarlanean aritzeko asmoa ere badute, elkarlanean dislexiari ahalik eta zabalkunde handiena emateko. Elkartetik azaldu duten moduan, dislexia duten pertsonen batez ere, ikasketa garaian topatzen dituzte traba eta zailtasun handienak, eta sarritan ez da ulertzen zergatik dituzten zailtasunak irakurtzean, idaztean... "Baina, hala ere, pertsona azkar eta langileak dira, beste ikuspuntu bat dutenak, erresilientzia handikoak... eta euren beharretara egokitutako laguntza txiki bat izanez gero, dir-dir egiten dute-



nak". Hain zuzen ere, ikasketa prozesuan dauden gazte horien beharrak asetu nahi dituzte taldeko guraso hauek, gizarteak gazte horiek uler ditzan nahi dute, eta horretarako ezinbestekotzat jotzen dute informazioa zabaltzea. Era berean, gazte horientzako material egokia prestatzeko beharra ere ikusi dute. Momentuz Elgoibarko kideak daude taldean bakarrik, eta beraian lan esparrua ere Elgoibar izango da nagusiki, baina bailarako gainerako herrientzat ere zabalik dituzte ateak, eta beharra duen edonori laguntzeko prestutasuna erakutsi dute. Beraiekin harremanetan jartzeko dislegidebabarrena@ni.eus helbidera idatzi daiteke.



ZERMIK INGENIERIA S.L. mikrokontrolatzaile bidezko diseinu elektronikoak garatzen espezializatua dagoen ingeniari-tza-entrepresa da. Horrez gain, LabVIEW-ren bitartez sistema industrialen kontrola eta monitorizazioa bideratzeko gaitasuna ere badu.



www.zermik.com

Usaetxe plaza 6-8, behea
Arrasate-Mondragon (Gipuzkoa)
Telf: 943 23 10 12

TXALAPARTA
ABERNA

Eta asteburuetan
pintxoak, afariak
eta bokatak!

- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo ondoak.
- Fritoak: urdaiazpikoa edo ondoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...

Erdikokale 13
(Ermua)

ENKARGUAK
943 030 299

MALLABIA 1965

Mallabiko San Martin baserriko Santi Zubiare Alberdi eta Etxebarriko Oluaga baserriko Isabel Mendibe Baskaran 1965eko urriaren 7an ezkondu ziren Arraten. Argazkian, senar-emazteok Arrateko zelaian, basilika ondoan erretratatu. 1969an Zubiare harategia jarri zuten Ermuko San Pelaio kalean 1982ra arte, eta urte horretatik 2004ra arte Diputazio kalean.



ERMUA 1932



Goian hasita, ezkerretik eskumara Javier Mallagarai txistu eta danbolinarekin, ondoan Joseba Idigoras, Casto Salaberria, Victor Garate, Andoni Areitioaurtena, Eusebio Arin, Jose Mari Araiztegi, Cosme Arin, Bitxorio Gorrotxategi, Lorenzo Mugerza eta atabalarekin Nazario Areitio. Beherengo hilaran Pablo Agirregomezkorta, Gregoria Ormaetxea, Antonia Bergaretxe, Lidia Elgea, Benita Ormaetxea, Rosario Gandiaga, Agus Agirregomezkorta, Miren Areitioaurtena, Jone Isasi-Isasmendi, Miren Idigoras eta Claudio Gorrotxategi.



Caperos

Pintxoak • Razioak • Kaxolak • Plater konbinatuak • Ogitartekoak
Probaleku z/g (Ermua) 699 292 043 • 636 549 154

**OSASUNA * ESTETIKA
EDERTASUNA**

Marfil

*Ile-apandegi bat
baino gehiago!!*

Egokitutako burua
garbitzeko konketa

943 17 28 09 • Goienkale 12

**NEREA IÑIGUEZ
HORTZ KLINIKA**

San Inazio 4 - Ermua
943 030 512 / niklinika@gmail.com

**hanigan's
Irish tavern**

Gosari, bazkari eta afariak
eramateko prestatzen dugu

Astegunetan 7:00etatik zabalik
Asteburu eta jaiegunetan,
10:00etatik.

Komentukua z/g • 943030527

**SAGARDUI
poltsak**

Zubiaurre, 29 - Ermua • 943 170305

RIF

**ITURGINTZA
KONPONKETAK**

Marques de Valdespina 16
ERMUA
605 71 10 81 / 688 71 27 10

LAN BILA

Ermuko neska euskalduna eskaintzen da umeak goizez zaintzeko. Esperientziarekin eta magistaritza ikasketekin.
© 648 62 52 09.

Neska gaztea, arduratsua eta esperientziaduna eskaintzen da pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko edo garbiketa lanak orduka egiteko. Egunez zein interna bezala.
© 632 04 40 01

Neska eskaintzen da umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko, edo garbiketa lanetarako. Esperientziarekin. Orduka, jardun erdia edo osoa. Berehala hasi naiteke lanean.
© 632 41 53 74.

Neska arduratsua eskaintzen da garbiketarako egiteko, edo pertsona nagusiak eta desgaituak zaintzeko. Esperientziarekin. Lan externa edo orduka.
© 617 67 49 27

IRAKASKUNTZA

Matematikako, fisikako eta kimikako klase partikularrak eskaintzen dira DBHn dauden ikasleentzat.
© 688 68 36 55.

SALEROSKETAK

Gaixoak ohetik altxatzeko garabia saltzen dut. Winnicare markakoa. Oso egoera onean. Prezioa: 250 €. Garabiarekin batera, eskaren kontrako koltxoi puzgarria oparitzen dut, motorrarekin.
© 699 24 42 13, Tere.



Apirilaren 25ean
Zorionak Naia, neska haundi! 7 urte jada! Oso egun zorionsua opa dizugu, aita eta amaren partez! Askok maite zaitugu, ilargiraino eta buelta! Patxo haundi bat!



Apirilaren 11n
Zorionak Libe!!! Hiru urte bete dituzu. Musu erraldoi bat Lucia, amatxo eta aitaxoren partez. Askok maite zaitugu, Libetxina Sagutxina!!!



Apirilaren 19an
Zorionak Diana!!! Itzali kandelak eta jan pastela. Musu erraldoi bat Lucia, Libe eta aitaxoren partez. Askok maite zaitugu, amatxo!!!



Xuban, maiatzak 10
Naiat eta Ekhi,
maiatzak 6
Zorionak gure hirukoteari! Izugarri maite zaituztegu! Patxo erraldoia.



Apirilaren 12an
Zorionak Nahia! 7 kandela zure pastelxoan, zu bai neska handixa! Gozatu zure egunaz, txapelduna! Patxo erraldoi bat, Oihanen partez bereziki! AMZ

Iragarkia edo zorion-agurra kaleratzeko, bidali mezua elektronikoa helbide honetara:
drogeten@gmail.com

Azken eguna: **Maiatzaren 20a**



TXINDURRI
TALDEA
Tokian
tokiko

PRO
arraindegia



ITSASKIAK
ARRAIN FRESKOAK
ETA IZOZTUAK

Zubiaurre, 21
943 17 16 96
ERMUA

Infreñu
Taberna

Kardenal Orbe plaza
943 174584
www.infretaberna.com



MUSIKA
ESKOLA

- Akordeoia
- Klarineta
- Biolina
- Panderoa
- Biolontxelo
- Perkusioa
- Bonbardino
- Pianoa
- Flauta
- Saxofoia
- Kantua
- Trikitrixa
- Gitarra
- Tronboia
- Gitarra elektrikoa
- Tronpeta
- Gitarra baxua
- Txistua
- Lengoia musikala

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com

ZINEA

Hilaren 1etik 3ra
Hilaren 7tik 10era
Hilaren 14tik 17ra
Hilaren 21etik 24ra
Hilaren 28tik 31ra
 Zehaztu gabeko filmak.
 Ermua Antzokian.
 Hainbat ordutegi.

ZINE-KLUBA

Hilak 5
Hilak 12
Hilak 19
Hilak 26
 Zehaztu gabeko filmak.
 Ermua Antzokian.
 20:30ean.

UMEENTZAKO
ZINEA

Hilak 1
Hilak 8
Hilak 15
Hilak 22
Hilak 29
 Zehaztu gabeko filmak.
 Ermua Antzokian.
 17:00etan.

MUSIKA

Hilaren 13an eta 14an:
 Vértigo Rock: Wormed,
 Cerebral Effusion, Teething
 eta Nakkiga (13an,
 20:45etik aurrera).
 Dagoba, Vitaimana,
 Rise to Fall, Ehun Kilo,
 Blaze Out, Cien Duros
 eta Slide (14an, 16:30etik
 aurrera).
 Betiondon.

ERAKUSKETAK

Hilaren 1etik 14ra:
 Margo erakusketa:
 Mugartea taldearen lanak.
 Ermuko dendetako
 erakusleihoetan.

Hilaren 3tik 15era:
 Argazki erakusketa:
 "Is scenam",
 Augusto Afonso
 Losadaren lanak.
 Lobiano Kulturgunean.
 18:00etatik 20:00etara.

Hilaren 16tik 29ra:
 Margo erakusketa:
 Udal margo eskolako
 ikasleen lanak.
 Lobiano Kulturgunean.
 18:00etatik 20:00etara.

ANTZERKIA

Hilak 6:
 "Ameriketako bidaia",
 Tanttaka taldearen
 eskutik. 20:30ean.
 Ermua Antzokian.
 Sarrera: 10 €

Hilak 13:
 "Los hermanos Machado",
 Teatro del Templeren
 eskutik. 20:30ean.
 Ermua Antzokian.
 Sarrera: 10 €

Hilak 20:
 "Altsasu", La Dramática
 Erraneren eskutik.
 20:30ean.
 Ermua Antzokian.
 Sarrera: 10 €

Hilak 27:
 "Todo en nosotros",
 La Brecha Konpainiaren
 eskutik.
 20:30ean.
 Ermua Antzokian.
 Sarrera: 12 €

BESTELAKOAK

Hilak 7:
 Eskolabarriren 25.
 urteurrena:
 hainbat ekitaldi.
 12:00etatik aurrera.
 Orbe kardinalaren plazan.

Hilak 14:
 Haurrentzako margo
 tailerra.
 11:00etatik 14:00etara.
 Orbe kardinalaren plazan.

Hilaren 16tik 22ra:
 Galiziako letreei buruzko
 jardunaldiak:
 hainbat ekitaldi.
 Orbe kardinalaren plazan
 eta Galiziako Zentroan.

Hilak 26:
 Mundu bat bertso
 jaialdia.
 17:30ean.
 Ermua Antzokian.

Hilak 28:
 Jokoaren Nazioarteko
 Eguna:
 hainbat ekitaldi.
 17:00etatik aurrera.
 Orbe kardinalaren plazan.

Patxi López

Enter
INFORMÁTICA
 SALMENTAK
 IRAKASKUNTZA
 ZERBITZU TEKNIKOA
 VI. Mendereuna 19, behea
 943 17 90 37
 enter@informaticaenter.com

arral
 Luis Cañas
 Amaren
 Cair
 Ehun
 Txakoli Astobiza
 Pazo Señorans
 Cava Oriol Rossell

Cair
 Casar de Burbia
 Bodegas Valdemar
 García de Olano
 Manzanos Wines
 Pernord Ricard Wines
 Faustino García Martínez.

nitida
T.943176075
 arral@arral97.com | Pol.Goitondo-Goikoa, Parc.7 - Pab.1 | 48269 Mallabia (Bizkaia)

Proba-Leku
 Ileanpaindegia - Estetika

 Probaleku 3, 1A
Tel. 943 17 05 42

URRETA **burdindenda**

✕ *Etxea* ✕ *Giltzak*
 ✕ *Tresneria* ✕ *Sarrailagintza*
 ✕ *Brikolajea* ✕ *Kit altzariak*
 ✕ *Errailak*

Zeharkalea 8 Tel. 943 17 65 61 **ERMUA**

Iberikoetan
 espezialistak
Mayte
 VI Centenario 5 · ERMUA
 943 172 412

Udan ere,
zure bidelagun

aek
euskara praktikoa



Kaltxango AEK euskaltegia

IKASTARO TRINKOAK

EKAINA | UZTAILA | IRAILA

Ekainaren 17tik uztailaren 15era (80 ordu)

Irailaren 1etik 30era (80 ordu)

Irailaren 12tik 30era (30 ordu)

Ikasturtean zehar ibilitako ikasleentzat

Izena emateko azken eguna: ekainaren 10a

4 orduko ikastaroak
Goizez zein arratsaldez
Diruz lagunduak

Zearkale 16 | 943 17 19 40 · 688 746 480 | kaltxango@aek.eus



EUSKALTEGIAK

Ikastaro trinkoak
Etxe ondoan
Euskara ikasteko
Azterketak prestatzeko



ONLINE IKASTAROAK

A1, A2, B1, B2, C1, C2



2 ASTEKO BARNETEGIAK

Euskara-eskolak
Euskaraz bizitzeko
Azterketak prestatzeko



FAMILIA BARNETEGIAK

Euskara ikasteko
Seme-alabekin
euskaraz aritzeko

Une zailenetan guztiaz arduratzen gara



Valdespinako Markesa kalea, 16



Hileta zerbitzuak:

- 24 orduko hileta-zerbitzu iraunkorra.
- Agur pertsonalizatuak.
- Gestoria: azken borondateak, oinordetzak, pentsioak, aseguruak...
- Estatuko eta nazioarteko lekualdaketak.

T. 943 176 159

Ermua · Eibar · Elgoibar · Bilbo · Basauri · Galdakao · Barakaldo · Portugalete ·
Santurtzi · Leioa · Getxo · Sestao · Karrantza · Zalla · Muskiz · Balmaseda